

# txintxarri



**"Esnatzeko garaia da"**

'Hitzartu' ekimena aurkeztu dute, hondakinen kudeaketa plan bat adosteko parte hartze prozesu baten bidez / 2

TXINTXARRI

## Sormenaren fruituak

Altuna eta Casado herritarrek haurrentzako ipuina argitaratu dute, Cardenasekin batera / 6-9

Sahararen Aldeko  
Euskal Karabanak  
elikagai eta hainbat  
produkturen bilketa  
egin du Lasarte-Orian / 5

Errepidera ateratzeko  
irrikitan daude  
Buruntzazpi  
Txirrindularitza  
Eskolako gazteak / 10

## EPA LASARTE HHI

2017-2018 ikasturtea

**MATRIKULA EPEA ZABALIK**  
**Urtarrilaren 22tik aurrera**

HELDUEN HEZKUNTZA, OFIZIALA ETA DOAKOA

Tel. 943 36 66 08 / 943 37 64 43 • Beko kalea bidea 1, 3 • Lasarte-Oria • [www.epalasarate.eus](http://www.epalasarate.eus)



Ordutegia:  
10:00-12:00  
17:00-19:00\*  
(\*ostiral arratsaldea  
itxita)





Ttakunenean aurkeztu zuten *Hitzartu* prozesua, asteazken honetan. TXINTXARRI

# Gizarteak hitza hartu dezan

*Hitzartu* parte hartze prozesuaren bidez hondakinen kudeaketa plan bat adostu nahi dute. Herritarrei erabakietan parte hartzera deitu diete: "Ezin dugu utzi agintariek adarra jo diezaguten". Erraustegia geldiarazteko esperantza ez dute galdu

## Adrian Garcia

Ez dute amore eman. Erraustegia egiteko lanak hasi dira dagoeneko, eta askorentzat aurreikuspen ezkorrenak bete dira. Haatik, gizarte zibilak ez du etsi nahi, eta beste bide bat urratzen hasi da hondakinen kudeaketa osasuntsu eta bidezkoagoa bat lortzeko helburuz. Aste honetan *Hitzartu* aurkeztu dute Lasarte-Orian; 2017-2030 urteetarako hondakinen plan oso bat adosteko herritarren parte hartze prozesua da. GuraSOS elkarteak bultzatu du egitasmoa.

Ahalik eta herritar gehien erakarri nahi dituzte prozesura. Baina horretan ere lan asko dute egiteko. Ttakunenean izan zen aurkezpena, asteazken arratsaldean, eta dozena bat pertsona besterik ez ziren hurbildu. Joxe Mari Izeta Hitzartuko bultzatzaileetako bat

da: "Badirudi jendeak etsi egin duela. Lanak hasten ikusi ditu, eta galdu egin dugula sentitu du". Aurkezpenera joan diren herritar batzuren irudipena ere bada: "Bakarrik gaude, gehienei bost axola zaie erraustegia".

Errealitatea bestelakoa da, ordea, *Hitzartu*-ko bultzatzaileen hitzetan. "Ez gaude bakarrik, jende asko dago gure atzean. Gizartearen gehiengo hori aktibatzea falta da". Hori erakusteko, bideo bat erakutsi dute. Bertan gizarteko pertsona nabarmenak agertzen dira hondakinak nola kudeatu

## ALDUNDIAK PARTE HARTZE PROZESU BAT HITZEMAN ZUEN 2016AN, BAINA EZ DU HITZA BETE

erabakitzeko kontsentsua eskatzen. Horien artean daude kirolariak, idazleak, epaileak, kultur arloko ordezkariak... Tartean baita lasarteoriatarak ere, Maialen Chourraut, esaterako.

## Erabaki ilunak

Parte hartze prozesua bultzatzeko finantzaketa beharrezkoa dute. *Crowdfunding* kanpaina bat abiatu dute horretarako. ES05 3035 0140 33 1400031124 kontu korrontean edo [www.itsulapikoa.eus](http://www.itsulapikoa.eus) atarian egin daitezke ekarpenak. Gutxienez 10.000 euro behar dituzte, baina gero eta diru gehiago bildu, orduan eta prozesu osoagoa egin ahal izango dute.

Nolanahi ere, arazoaren muina ez da soilik erraustegia. Joseba Belaustegi GuraSOS elkarteak horrela azaldu du: "Gutxi batzuen

## Mendi martxa, erraustegiaren aurka

Zaborra erretzean askatuko diren toxinak bakarrik ez, beste ondorio kaltegarri batzuk ere ekarriko ditu erraustegiak. Adibidez, azpiegitura horri zerbitzua emango dion goi tentsioko linea. Proiektuaren arabera, Hernani eta Urnieta bitarteko mugan hasi, eta gutxi gorabehera Azkorteke ermitan barrena erraustegiraino iritsiko litzateke. Une honetan proiektua Jaurilaritzako Ingurumen Sailaren oniritziaren zain dago. Linea horren aurka egiteko, inguruko herrietatik mendi martxa antolatu dute datorren larunbatean, hilaren 27an. Lasarte-Oriatik, Hernanitik, Urnietatik eta Andoaindik abiatutako zutabeek Azkorteke ermitan bat egingo dute, 11:30ean. Bertan linearen ezaugarriei buruzko informazioa jasoko dute, eta Lasarte-Oriara iritsiko dira. Okendo plazan ekitaldi bat egingo dute, 13:00etan.

artean erabakitzen dute, baina denon artean ordaintzen dugu. Abiadura Handiko Trenarengatik 15.000 euro ordaindu beharko ditu familia bakoitzak. Beharrezkoa al da? Donostiako metroarekin ere gauza berbera gertatu da".

Erraustegiaren lanak geldiarazteko saialdia zapuztuta, beste bide bati heldu dio GuraSOSek. Izan ere, Gipuzkoako Aldundiak egin gabe du hurrengo hamarkadarako hondakinen kudeaketa plana. 2016an Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak hitzeman zuen plan hori egiteko parte hartze prozesu bat bultzatzeko zuela. Ia bi urte igaro ondoren, ez dute gaia berriro aipatu. "Agintariek adarra jotzen digute. Prozesu hori egin nahi dute, baina erraustegia zalantzan jarri gabe. Behin martxan dagoenean hasiko dira horretan", uste du Belaustegik.

## Legez egin beharreko plana

Horregatik, aurrea hartu nahi du gizarte zibilak. Azken hondakinen plana 2002-2016 urte bitartekoa da, eta legez beste bat onartu egon beharko litzateke. "Haiek ez badute nahi, guk egingo dugu", esan du Izetak. Kontu handia jarri dute parte hartze prozesuak berme guztiak izan ditzan. Euskal Herriko Unibertsitateak diseinatu du, eta berme batzorde bat eratu dute, zientzialari, aditu eta

## ERRAUSTEGIAK KONTU PUBLIKOETAN ZULO HANDIA EGINGO DUELA SALATU DUTE

erreferentziatzeko izenekin. "Aldundiak plana egiten hasterako guk gurea erakutsiko diegu, gizartearen parte hartzearekin eta behetik gora eginga. Gainera, berme guztiekin", azaldu du Izetak.

Botere guneetan hartzen diren erabakiak oso "ilunak" dira, Belaustegiren esanetan. Horregatik beharrezkoak dira herritarren parte hartze prozesuak, informazioa zabaldu dadin eta erabakia kontsentsuzkoa izan dadin. "Baina agintariek ez dute hori nahi. Nahiago dute gure artean gatazka piztu". Lemoizko zentran nuklearraren garaiak ekarri ditu gogora. "Beldurra sartu nahi digute. Orduko hartan esaten ziguten azak besterik ez genituela jango". Halere, jakitun da zaila dela orain dela hamarkada batzuetako mobilizazioa piztea. "Izorratuagoak gaude orain. Hipotekak dauzkagu, gehiago gastatu behar dugu. Baina esnatu egin behar gara".

Horretara dator *Hitzartu*. Gizarteak gaiaren inguruan esku hartu dezan nahi dute. Jendeak hitza hartzea. Baina herritarrek gaiaren inguruan jakitea berebizikoa dute. Herriz herri egiten ari diren saio horietan banatzen dute informazioa, "aldundiaren propagandari aurre egiteko". Ekintzaileek azaldu dutenez, osasunari buruzkoa bakarrik ez, eztabaida ekonomikoa ere bada. "EAJkoek beraiek onartu digute proiektu garestia dela", esan du Belaustegik. Ondorioz, hipoteka bikoitza litzateke: osasun arlokoa batetik, eta kontu publikoena, bestetik. "Medikuak falta dira, baina horretan ez dute gastatu nahi. Erraustegia egiteko, ordea, ez dute arazorik zorpetzeko".



Landaberri ikastolako hesietan dauden pankartak kentzeko agindua eman du Hezkuntza ikuskaritzak. LANDABERRI IKASTOLA

# Ezin erraustegiari buruzko kezka adierazi

Landaberri ikastolak salatu du Hezkuntza ikuskaritzak ikastolako pankartak kentzeko agindua eman diola. 2016ko maiatzetik ikastolako organuek erraustegia horren gertu eraikitzeak sortzen duen kezka agertu diote Jaurlaritzari. Irakasleek berriro ere haien iritzia plazaratu dute

## Txintxarri

Landaberri ikastola eta Artzabaletan eraikitzen ari diren erraustegiaren artean 500 metro daude. Proiektua lantzen hasi zenetik ikastolako organuek osasunean eragin ditzakeen kalteekiko kezka adierazi dute, eta hainbat ekintza eraman dituzte aurrera hori jakinarazteko, batez ere eraikitzen hasi zirenetik. Hori azaleratzeko moduetako bat Landaberri ikastolako Zubietako eraikineko hesian dauden pankartak dira. Ikastolako irakasleek jakitera eman dutenez, joan den azaroaren 30ean Hezkuntza ikuskaritzaren deia jaso zuen Landaberri ikastolak, pankartak kentzeko aginduz.

Hori dela eta, ikastolako 54 irakasleek haien iritzia eman eta ikastolak jarraitutako pausoen berri emanez oharra plazaratu du.

## Aurrekariak

Azaltzen duten moduan, aurreko ikasturtean irakasleek bi herenek hartu zuten parte zentroan erraustegiaz egindako inkestan. "Horretan, %84k adierazi zuten

Artzabaletan erraustegia eraikitzeak kezka handia eragiten diela".

2016ko maiatzean, klaustroaren proposamenaren ostean, Organo Gorenak eskutitz bat helarazi zion Gipuzkoako Hezkuntza ordezkari Gema Gonzalez de Txabarriri. Horretan erraustegiarekiko irakasleek kezka adierazteaz gain, osasun bermeen inguruko argibideak ere eskatzen zitzaizkion. "Inolako erantzunik ez dugu jaso, eskutitza bi alditan bidali badugu ere," azpimarratu dute irakasleek.

Bestetik, 2017ko otsailean Donostiako Eusko Jaurlaritzako egoitza aurrean agerraldia egin zuen Landaberri-Garaikoetxea ikastetxeko irakasle talde batek. Egitasmoarekin "oso kezkatuta" zeudela adierazi zuten, eta Gonzalez de Txabarriri eskatu zioten "erantzun argi bat" emateko.

Orduan, eskaera argi eta garbi plazaratu zuten: "Erantzun argia eskatzen dugu. Hori jaso ezean, publikoki gure kezka adierazten jarraituko dugu".

Orain, Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Hezkuntza delegatuak pankartak kentzeko agindua eman dio. Irakasleek argitu dutenez, jakinarazpen bakarra ahozko agindua izan da.

## Irakasleek adierazpenak

Honen aurrean, irakasleek honako hau jakinarazi dute, hitzez hitz:

- "Ohitura osasuntsuak eta sostengarritasuna ikasleekin lantzen ditugun era berean, zaborren trataeraren kultura osasuntsu eta sostengarri berbera jorratzen dugu, murrizketa eta berrerabilpena sustatuz".
- "Pankartak eta hormirudiak adierazpen jardueratzat ditugu gure ikastetxean, eta, aldi berean, bizitasun eta askatasun adierazle ere".
- "Hausnarketan eta errespetuan oinarrituta, arazo komunei irtenbide kolektiboak bilatzearen alde aritzen gara".
- "Azkenik, erraustegiaren tximiniak bota litzazkeen dioxinen aurrean gure kezka berresten dugu".

## NEURE KABUZ



ANE LABAKA

## Maialen eta Messi

Maialen eta Messi. Messi eta Maialen. Ohorezko sake bati esker bosteko batean bi mundu paralelo elkartu zirenekoa.

Ertzaren ertzari punta atera ohi dion bertsolaria zentroaren zentroan. Emakume ahots bat (lehen aldiz?) gizontasunaren estadioa dardarazten, mikrofonoa baliatuz kirolean lehiatzeko gaitasunaren beharra azpimarratzeko, neska-mutilen artean oraindik ez dagoen aukera berdintasuna eta euskararen ertzekotasuna aipatzeko. "Zuen zangoek (e)ta gure oinek hortxe egingo dute bat". Oraingoz ezinezkoa da bat egitea, beraz.

Bertso-eskolako gaztetxoek jarri diet Anoetako bideoa nahita. Badakite nor den Maialen Lujanbio, finala baino lehen gehienek kokatzen zuten hernaniarra txapelkuntzat euren kinieletan eta finalaren ondoren bertso-eskolan entzun ditugu berak egindako zenbait ariketa eder. Irakasle duten honek disimulatu ezinezko miresmenez hitz egin die bertsolariari buruz eta Lander "Maialen munduko onena da!" esanez irten zen behin bertso-eskolatik.

Hala ere, aste honetan beraiek argitu didate niri nor den "munduko onena":

- Ala, Maialene MESSIREKIN egoteko aukera izan zuen, bostekoa eman zion... - bota du harrituta Ainarak.
  - Bai, eta Messik MAIALENEKIN, ezta? - erantzun nik.
  - Bai, baina ez da gauza bera... - hausnartu du Norak.
- Hortxe, bi mundu paralelo.

## Romina Rios, Espainiako Whisky Ginger txapelketa

Lavie Gastrobarreko Romina Rios garaiak berria eskuratu du 2017ko Espainiako Whisky Ginger Ale txapelketan. Baina ez da sari bakarra izan, aperitiboetan hirugarren saria eskuratu du.

Espainiako Barman elkarteak LXIV koktelaria txapelketa antolatu du Meridan azaroaren 27a eta abenduaren 1a bitartean. Romina Rios aipatutako bi modalitateetan parte hartu eta

sari banaketan bi mailetako hirugarren postuko trofeoa eta diploma jaso zituen. Orain ordea, Espainiako Barman elkarteak Whisky Ginger txapelketako puntuazioan akatsa zegoela jakitera eman du, eta Rios izendatu du maila horretako irabazle.

Rios 2016an hartu zuen parte lehen aldiz horrelako txapelketa batean, eta emaitza onak ikusita gehiagotan parte hartzera animatu da. 2017ko ekainean, esate baterako, Segoviako koktel txapelketan garaile izan zen.

## Eneko Orozek abiatu du EITBko saio baten azpidazte egitasmoa

Haur motxiladunen errealitatearen berri emateko saioa aurkeztu zuen iragan astean EITBko euskarazko *Ur Handitan* saioak.

Oihartzun handia izan du saioak, besteak beste sare sozialetan beste hizkuntzetara itzultzeko eskakizunak egiten hasi baitzen jendea. Eskakizun horri jarraiki, Eneko Oroz lasarteoriatarrek abiatuta, zazpi

hizkuntzataraz azpidazte dute dagoeneko.

"Erantzuna sekulakoa izan da, jende pila bat batu da egitasmoa, eta jendeak izugarri lagundu du", azaldu dio Orozek TXINTXARRI-RI.

Oraingoz, gaztelaniara, ingelesera, frantsesera, alemanierara, katalanera, galizierara eta asturierara itzuli dute. Halere, Orozek aditzera eman duenez portugesez eta aragoierara itzultzeko lanetan ari dira, nahiz eta oraindik bukatu ez duten.

# Uistinen aparkalekuak bikoiztuko ditu udalak

Uistin kalean 28 aparkaleku gehiago eraikitzeke proiektua aurkeztu du udalak. 2017ko aurrekontuetan irekitako parte hartze prozesuan aukeratu zuten proiektu hori. Espero dute hiru hilabete barru lanak adjudikatzea. Sei hilabete iraungo dute

## Txintxarri

Iaz herritarrek aurrekontuetan parte hartzeko prozesuan aukeratu zuten Uistin kalea berriro urbanizatzea, eta udalak dagoeneko badu esku artean proposamena: 28 aparkaleku gehiago egingo dituzte, eta dagoen 23rekin batera, 51 izango dira guztira. "Egiten ditugun inkestak arabera, Lasarte-Oriako arazo nagusia aparkatzeko zailtasunak dira. Proposamen honekin arazoa konpondu nahi dugu", esan du Jesus Zaballos alkateak.

Hipodromo etorbideetik Uistin kalera sartzean eskuinera dagoen espaloian egingo dituzte lanak. Linean dauden aparkalekuak kenduko dituzte, eta gehiagorentzako tokia egiteko, baterian ezarriko dituzte. Halere, alkateak ohartarazi du dauden zuhaitzak bere horretan utziko dituztela. Hori bai, espaloia estutu egingo dute. "Denda gutxi daude, eta etxebizitzaren ataririk ez dago. Espaloia zabala da eta horregatik erabaki dugu alde honetan lanak egitea", esan du Zaballosek. Bide batez, lanak aprobetxatuko dituzte kaleko argiak aldatzeko eta LED argiak jartzeko. "Juan XIII eta Zubietako plazetako etxe atarietan ere argiak jarriko ditugu".



Valdivia eta Zaballos, lanak egin behar dituzten Uistin kaleko espaloian. TXINTXARRI

Agustin Valdivia Hirigintzako zinegotziak lanen xehetasun gehiago eman ditu: "301.690 euroko kostua du, eta obrak hastean sei hilabetean egina egongo da". Proiektua onartuta dago, eta orain enpresek haien proposamenak aurkeztu beharko dituzte. "Litekeena da prezioa eta denbora murriztea lehiaketan", esan du Valdiviak. Hiru hilabete barru proiektua adjudikatua egotea espero dute. "Bizilagunei eta dendei ahalik eta kalte gutxien eragiteko, enpresari eskatuko diogu koordinazio

plan bat edukitzea", ohartarazi du alkateak.

## 2018ko aurrekontuak

Azken parte hartze prozesuan 312 herritarrek parte hartu dute. Argiteria publikoa hobetzea eta kale garbiketa hobetzea izan dira herritar horiek aukeratutako proposamenak. 1.112 eta 951 boto jaso dituzte, hurrenez hurren. Halere, udal gobernua "hainbat arazo" antzeman ditu prozesu horretan, eta hurrengoan horiek saihesteko arau erregulatuak batzuk adostuko ditu.

hartutako kredituen interes eta amortizazioaren ondoriozko gastuak ordaintzeko; 50 energia eta mantentze lanetara bideratu dira; eta bi etxebizitzaren bizigarritasunera.

Horiekin batera, hemeretzi, premiazko beharrei erantzuteko bideratu dira, eta zazpi, berriz, zorpetzearen ondoriozko gastuetara.


Horiekin batera, hamasei laguntza ukatu ditu udalak. Hamar, baldintzak betetzen ez zituztelako; hiru, dokumentazioa ez zutelako aurkeztu; eta beste hiru, beste laguntzak jasotzen dituztelako.



TXINTXARRI

## Urtarrilean, aldaparik ez

Urtarrilean hainbat gasturi egin behar izaten diote herritarrek, eta hilabete aldapatsua bihurtu ohi da askorentzat. 31 egun hauek ez zaizkio horren malkartsuak egingo Aurelio Rodriguez bezeroari: Ogi Berri okindegiak urtero zozketatzen duen 1.500 euroko saria irabazi du.



TXEMA VALLES

## Igoera txikiagatik, protesta

Espainiako Gobernuak pentsioak %0,25 igoko dituela eman du jakitera, eta igoera txiki hori salatzen protesta egin dute Lasarte-Oriako pentsiodunek, Okendo plazan. Dozenaka herritar elkartu dira, horren aurkako aldarrikapena egiteko.

Igoera xume horrekin 2,3 euro gehiago besterik ez dituzte jasoko pentsiodunek hileroko. Datozen egunetan protesta gehiago egingo dituztela iragarri dute.

## 157.765 euro bideratu ditu udalak gizarte larrialdietara

Lasarte-Oriako Udalak 128 laguntza eman ditu 2017. urtean. Horietaz gain, hamasei laguntza ukatu ditu

## Txinxtarri

Gizarte larrialdietarako 128 laguntza eman ditu udalak 2017. urtean, eta guztira, 157.765 euro bideratu ditu horretarako. Horietatik 155.380 euro Eusko Jaurlaritzak eman ditu, eta

gainerako 2.385 euroak Lasarte-Oriako Udalak jarri ditu.

Emandako 128 laguntzetatik 43 ohiko etxebizitza mantentzeko beharrezko gastuetarako eman dituzte; zazpi laguntza gizarte larrialdiko egoera baino lehenago

## Aitor Carrasco udalean lan egiten hasi da

Foru Aldundiak babestutako *Pauso Berriak* programari esker, Aitor Carrasco herritarra udal liburutegiko eta artxiboko laguntzaile lanetan arituko da urtebetez. Fitzak artxibatzea, zigiluak jartzea, gutunak gutun azaletan sartzea, liburu eta CDak alfabetikoki ordenatzea eta liburuxkak taldekatzea izango dira, besteak beste, Aitor

Carrascok egin beharreko lanak.

Asteartean sinatu zuen hiztarmena Lasarte-Oriako Udalak Gureakekin eta Atzegirekin.

Aitor Carrascok batera, Gureak Inklusio Fundazioaren ordezkari Ainhoa Ascasibar eta eta Atzegiren izenean Miguel Lakunza izan dira Jesus Zaballos alkatearekin.

Lasarte-Oriako Udalak 4.000 euroko diru laguntza emango dio *Pauso Berriak* programari.

# Herriko saskietatik, Mendebaldeko Saharara

Sahararen Aldeko Euskal Karabana Lasarte-Orian dago egunotan. Herriko merkatalgune, ikastetxe eta beste hainbat egoitzetatik ari dira pasatzen, sahararrentzako elikagaiak eta produktuak jaso eta haiei eramateko gero

## Txintxarri

Herriko merkatalguneetan aparkatu zuen larunbatean Sahararen Aldeko Euskal Karabanak. Herrian zehar dabil egunotan, sahararrentzat elikagaiak eta garbitasun produktuak biltzen. Gaur arte, Lasarte-Oriako hainbat gune zeharkatuko dituzte.

BM, Eroski, Dia eta Urbil zentroetan egon dira. Herriar ugari hartu du parte, eta euren erosketa saskietatik hainbat produktu atera, eta karabanarako kaxetan sartu dituzte, Mendebaldeko Saharara bidaltzeko gero.

Honako produktuak bildu dituzte: lekaleak, arroza, pasta, atuna eta sardinak oliotan, azukrea eta konpresak.

Horietaz gain, *Lasarte-Oria Sahararekin* lelodun txiskeroak eta pinturak dauzkaten kutxa txiki batzuk salgai jarri dituzte. Lortutako dirua bigarren eskuko kamioiak erosteko erabiliko da, elikagaiak eta produktuak Saharara eramateko.



Geratu gabe ibili da bolondres talde hau BM merkatalgunean. TXINTXARRI

Bestalde, Lasarte-Oriako Saharako Lagunek, udalaren laguntzarekin, *Oporrak bakean* egitasmoa aurrera eramango dute. Horrela, beste urte batez udan saharar haur talde bat izango da herrian.

Programaren helburua 10 eta 12 urte bitarteko haurrak basamortuko errefuxiatu kanpalekueetatik ateratzea da,

baita ere desertuan udan surfritzen duten temperatura altuetatik babestea. Hemen mediku azterketak egin eta oinarrizko arazoei irtenbidea ematen zaie. Era berean, elikadura gabezien ondorioz sortutako gaitzei aurre egiten diete. Haur horiei aterpea eman nahi dieten familiek udaleko Gizarte Zerbitzuarekin jarri behar dute harremanetan.

## Buruntzaldeko gazteen bidaien lehiaketa abiatu du Urnietak

Diaporama lehiaketa antolatu du Urnietako Udalak. Bi sari nagusi izango dira: Kultururnieta eta ikuslearena

### Txintxarri

Urnietako Udalak bidaien diaporama lehiaketa jarri du martxan. Lehiaketan parte hartzeko 16 urte baino gehiago izan behar dira. Horrez gainera, Buruntzaldean bizi, ikasi edo lan egitearekin nahikoa da.

Izena ematea urtarrilaren 15tik otsailaren 9ra egingo da. Inskripzio orria Lekaio kultur etxean, Urnietako Gazte informazio puntuan eta udaleko webgunean eskuragarri dago. Bete ostean, leku horietan entrega daitezke, 650 250 356 whatsappera edo

[gazteinformazioa@urnieta.eus](mailto:gazteinformazioa@urnieta.eus) helbidera bidali.

### Aukeraketa

Aurkezten diren eskaera orri guztien artean bost aukeratuko dituzte, eta horiek erakutsiko dituzte haien diaporamak.

Otsailaren amaieran jakinaraziko dituzte izenak, Urnietako udalaren webean eta sare sozialetan. Diaporamak martxoaren 19tik 23ra aurkeztuko dituzte. Bakoitzaren eguna, ordua eta erakusteko lekua aurrerago zehaztuko dute.


Diaporamak 30 eta 60 minutu artekoa izan behar du, eta irudi eta bideoez osatu daiteke. Horretan esperientziaren eta ibilbidearen berri eman, eta bidai nola antolatu den ere kontatu beharko dute gazteek.

### Saria

Sari ugari izango dira. Bost pertsona horiek aukeratua izateagatik soilik 100 euroko saria eramango dute.

Honez gain, Kultururnieta saria (300 euro) eta ikuslearen saria (200 euro) ere banatuko ditu lehiaketak.

Kulturmetaren saria banatzeko epaimahai bat osatuko da. Ikuslearen saria erabakitzeko, berriz, diaporama bakoitzera joaten diren ikusleen esku egongo da, horiei puntuazio bat emateko eskatuko baitzaie.



## TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatoz Euskal Inauteriak!

Txantxoz jantzera animatu nahi zaituztegu.

Jantzia ez duzuenontzat heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatu dugu.

### Eraman beharrekoa:

Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

**Noiz:** Urtarrilaren 24ean, 17:30etik 19:00etara eta urtarrilaren 27an, 11:00etatik 12:30era, anbulategiko eraikineko 2.pisua.

### Informazioa eta izen-ematea:

Ttakunen, [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus) edota 943 37 14 48 zenbakian.



Ainara Altuna eta Miren Casado dira *Hor doa pilota!* haurrentzako ipuinaren hiru egileetako bi. TXINTXARRI

# "Garrantzitsua da istorioan sartzean irakurleak lortzen duen plazera"

**AINARA ALTUNA ETA MIREN CASADO 'HOR DOA PILOTA!' LIBURUAREN EGILEAK** Bizipenetatik abiatu eta haurrentzako ipuin bat argitaratu dute hiru sortzailek. Horietatik bi Lasarte-Oriakoak dira, eta egindako lanaren berri eman diote TXINTXARRI-ri

## Maddi Noriega

Bizipenak paperera eraman eta aspaldiko lagunak elkartu ditu *Hor doa pilota!* haurrentzako ipuinak. Boligrafoa hartu eta Koldo ilobarekin izandako bizipenak paperera eraman zituen Miren Casadok (1979, Lasarte-Oria) lehenik. Idatzitakoaren berri eman zion orduan bere lankide eta ipuineko

idazle ere izan den Itziar Cardenasi, eta letrei ilustrazioa jartzeko gogoz, txikitako lagun

**"IPUINEKO ISTORIOAK BADU GU HIRUON ARTEKO LOTURA, KURIOSOA IZAN DA ALDE HORRETATIK"**

Ainara Altunak (1979, Lasarte-Oria) jaso zuen proposamena. Hasierako ideiatik asko aldatu da azkenean argitaratu duten ipuina, baina gustura daude sortzaileak lortutako emaitzarekin.

Argitaletxeetako zenbait ate itxita topatu dituztela aitortu diote TXINTXARRI-ri, baina argitaratutako euren lehen lana

autoekoizpen lana izatea sekulako irakaskuntza izan da.

Orain argitalpenaren fruitua jasotzen ari badira ere, badute beste elkarlanen bat eskuartean. Baina printzipioz, behintzat, ez dute ezer aurreratu nahi izan.

**Nola sortu zen hiruon arteko elkarlana?**

**Ainara Altuna:** Miren eta biok txiki txikitako lagunak gara. Oso lagun onak, gainera. Bakoitzak bere bidean jarraitu dugu urte hauetan guztietan, eta Mirenek zerbait egiteko ideia bat zeukala esateko deitu zidan.

**Miren Casado:** Eskolan lanean ari nintzela, lankide berri batekin hizketan ari nintzela, galdetu zidan gustura zer egingo nukeen. "Jo, ba ipuin bat idatziko nuke gustura, aspaldi daukat ideia hori buruan..." Lankideak orduan, beste irakasle batek gauza bera esan ziola komentatu zidan, eta bazkal orduan gaiaz hitz egin nuen berarekin.

Ilustratzailea beharko genuela -eta eduki genitzakeen aukerei begira hasi ginen. Nik esan nion Itziarri txikitako lagun batekin [Ainararekin] elkartu nintzela, eta ipuintxo bat sortzeko ideiaz hizketan aritu ginela. Itxuraz Ainara ez zuen ezagutzen, baina gaiaz hizketan ari ginela, Itziarrek azoka batean erositako ilustrazio batzuen inguruan hasi zitzaidan hizketan, eta horien egilea Ainara zen. Ez genuen zalantzarik egin, eta hiruon arteko elkarlanari ekin genion. Oso kuriooa izan zen.

**Behin hirurak elkartu eta proiektuari hasiera emanda, nola lortzen da haurrentzako ipuin hau egitearen ideia?**

**M.A.:** Ipuin honen ideia sortua zegoen. Nik banuen zerbait idatzita, eta hori abiapuntutzat hartuta hasi genuen lan guztia. Idatzita zegoena gustatu zitzaien, eta horrekin lan egiten jarraitzea erabaki genuen. Sortuta zegoen ideiarri forma ematen aritu gara, ilustrazioaren aldetik ere hitzak eta marrazkiak nola lotu pentsatu behar zen.

**A.A.:** Denbora dezente pasa genuen idatzita zegoen hasierako ideiarri forma ematen. Urtebete baino gehiagoko lana izan da. Ipuina orrialdeetan zatitzeko, nik marrazkiak sortzen nituen heinean testua marrazkietara egokitzen genituen, eta alderantziz... Pixkanaka

pixkanaka joan gara ipuina osatzen, biontzat lehen liburua izan baita.

**Zergatik haurrentzako?**

**M.C.:** Itziar eta biok irakasleak gara, eta agian izan liteke haurrentzako idaztea errazagoa egiten zaigulako.

**A.A.:** Itziarrek izugarritzko ekarpena egin digu haurrentzako liburuekin. Haurrentzako liburu pila bat ezagutzen ditu, eta eredu pila bat ekarri dizkigu zer dagoen ikusi ahal izateko.

**Izenburua irakurrita, pilotak izango du esanahirik, ezta?**

**M.C.:** Nik Koldo izeneko iloba bat daukat eta ipuineko Koldoren izaera nire ilobarena da. Ingurua aldatu egin da, baina Koldo nire iloban oinarrituta sortutako pertsonaia da.

Nire iloba Koldok pilota saltokariarekin zenbait egoera aldatu izan ditu, eta horiek etorri zitzaizkidan gogora: bat batean, ezagutzen ez dituen beste umeeekin pilotarekin hasi eta jolasean amaitu izan du, besteak beste. Geldik geratu izan balitz, pilota bota gabe, egoera berri horiek ez lirakeke sortuko. Mugimendu horretan sortzen diren egoerak ekarri nahi izan ditugu ipuinerara. Pilota bada egoerak aldatzen dituen gauza bat. Prest baldin bazaude pilota botatzeko, horrek ondorioak izan ditzake. Ondorio horiek ondo edo gaizki ikusiko ditu norberak, baina egoera aldatu egingo da denentzat.

**Nondik hasten da ipuin hau idazten eta ilustratzen?**

**M.C.:** Pilotaren bizipena baneukan. Egun batean esnatu, eta istorio hau kontatu egin behar nuela sentitu nuen. Egoerak nola aldatu litezkeen abiapuntutzat hartuta, nire iloba Koldo beste leku batean jarri nuen, eta Ainara eta Itziarri eraman nien irakurtzeko.

**"ERREALA IZAN DAITEKEEN ISTORIOA KONTATZEN DU, BAINA BADIRA UMORE TARTEAK ERE"**

**"KOLDO ILOBAREN IZAERAN OINARRITUTA IDATZI NUEN IPUINEKO ISTORIOA"**

## "NI TXIKIAK ZER IZANGO ZUEN GUSTUKO PENTSATUTA EGIN DITUT ILUSTRAZIOAK"

## "ARGITALETXEETAKO ATEAK JO DITUGU, BAINA HORIETAKO ZENBAIT ITXITA AURKITU DITUGU"

A.A.: Irakurri nuenean, gauza asko esaten zituela nabarmen ikusi nuen, eta horrekin batera, mugimendu askoko istorio bat zela ere antzeman nuen. Horrela, testua hartu eta pertsonaiak sortzen hasi nintzen: Koldo, aitona, katua...

Behin pertsonaiak sortuta, estilo eta kolore aukeraketa egin nuen. Horren ostean, lan gehien sortu digun prozesua etorri zen; istorioa orrietan zatitzea eta orri bakoitzeko kontakizunari dagokion marrazkia jartzea, bai testua eta baita ilustrazioak ezkondu daitezten.

Hasierako bozetoetan egin genuena eta atera dena oso diferentea izan da.

**Nor dira Koldo, aitona Niko eta Mox?**

M.C.: Koldo nire iloba da, eta bere izaera du ipuineko Koldok. Aitona Nikok, berriz, Itziarren aitona gorpuzten du. Istorioa idatzi nuenean bazegoen aitona baten figura, baina Itziarrek irakurri zuenean, bere aitona irudikatu zuen. Horregatik, Itziarrek kontatu zigun bere aitona egurrezko bastoiak dekoratzen zituela, eta ipuinean ere makilatxoak marraztu ditu Ainarak.

A.A.: Mox katua ere erreala da. Miren eta biok txikiak ginenean elkarrekin edukitako katua zen Mox. Ikastolako garaian, irakasleak Max, Mex, Mix, Mox eta Mux izeneko katu txiki pila bat zeuzkan, eta zozketan tokatu zitzaigun katua. Hasieran etxera eramane nuen, baina bi egun iraun zituen bertan eta baserrira eramane nuen. Katakume pila bat egin ditu Moxek baserrian, belaunaldi pila bat ekarri ditu Moxek, hainbeste katakumeren artean baserriko amona izan da.

**Zuen arteko lotura bat ere bada ipuin honetan, beraz.**

M.C.: Bai bai, istorioak badu gu hiron arteko lotura. Kuriosoa da alde horretatik.

**Nola sortzen da zerbait idazteko edo ilustratzeko ideia bat? Sentimendu batetik, pentsamendu batetik...**

M.C.: Nire kasuan ilobarekin izandako bizipen batetik etorri da istorioa. Askotan egoten da gurekin. Koldok umore oso ona dauka, eta izugarritzko gaitasuna du egoerei buelta emateko. Beregan, izaera horretan oinarrituta idatzi nuen testua. Bizitza honetan denak du buelta, mugitu egin behar da horretarako, gauzak egiten badira, gauzak aldatuko dira.

Hasieran ematen du egoera okerrera doala, baina buelta ematen zaio gero egoerari eta erabat aldatzen da gero. Heldu batek begiratzen uzten ez badio haurrari, mugak jartzen baldin badizkio, ezinesko zaio beren modura egoerak barneratzea.

A.A.: Naturalki ateratzen da. Ipuin honen kasuan, samurtasun asko zegoen istorioan, eta nire kasuan, koloreen bitartez eta pertsonaien arteko erlazioan hori adierazten saiatu naiz.

**Askotan esaten hainbeste kostatzen den hori, nola idazten edo ilustratzen da? Nola lortzen da barruan dagoen ideia testu edo marrazki bihurtzea?**

Nik asko asko neukan idatzita. Hitz askoko istorio bat neukan, eta hortik abiatuta, oso ondo

ulertzen den istorioa. Asko kontatu nuen, eta asko irakurri zuten Itziarrek eta Ainarak.

**Lehen ipuin honek bide eman al dizue beste lanen bati ekiteko, edota ipuinari jarraipen bat emateko?**

A.A.: Hasieran bilduma bat egitea pentsatu genuen, anbizio asko izan genuen, baina lehen lan hau egiteak suposatu duen lanarekin jaitsi dugu asmo hori. Egia da hasieran ez geunden puntu batean gaudela orain: gauza asko berriak ziren hasieran eta orain badakizkigu, beraz ez dugu elkarlan gehiagoren aukera baztertzen. Dagoeneko badaude beste lantxo batzuk gure buruetan. Gure bizitzak eta lanak horiekin aurrera egiteko aukera eman behar digute, baina egon badaude ideia batzuk, bai.

**Nola ilustratzen eta idazten da haurrentzako ipuin bat?**

A.A.: Ume baten ikuspuntuan sartzan saiatu naiz ilustrazioak egiteko. Itziarrek ekartzen zituen liburuei begirada bat bota eta gaur egun zer egiten den ikusita, ni txikiak zer izango zukeen gustuko pentsatuta egin ditut marrazkiak. Saiatu naiz koloreak goxoak izatea eta marrazkiek umorea izatea. Umek jarraitzeko gogoz geratu behar du, harrapatu egin behar du.

Testuak kontatzen ez duen istoriotxo bat gehitu diot ipuinari animalien bitartez. Animaliak gustuko izaten dituzte

haurrek, eta horrek ere ematen dio joko.

Buruan nituen ilustrazioak paperera eramateko orduan batzuetan marrazki osoak daude, baina tarteka marrazki puskatuagoak ere badaude ipuinean. Kontatzeko modua beti berdina ez izateko egin dut hori

M.C.: Ipuina idazterako orduan asko lagundu dit nire ilobaren lekuan jartzeak. Umek pentsatzen duguna baino askoz gehiago ulertzen dute, eta hortik abiatuta hasi nintzen *Hor doa pilota!* Idazten. Gauzak oso ondo ulertzen dituzte, baina beraien mundura jaitzita. Helduok erreparatzen ez diegun gauza askotan fijatzen dira haurrak.

**Errealetik badu orduan *Hor doa pilota!*-k.**

Erreala izan daitekeen istorio bat da, bai. Badaude umorearen bitartez errealetatetik urrunago geratzen diren pasarteak, baina badu errealetik ipuinak.

**Zuentzako idaztea eta ilustratzea barruan duzuen askatzeko modu bat dela esan duzue. Bada terapiarako bide bat idaztea eta ilustratzea?**

A.A.: Bai. Terapiako aldia izan liteke aurretik landutako zerbait, eta behin elaboratu duzunean marrazkitara pasatzen duzu. Arte terapian aritzen naiz ni.

M.C.: Terapiari lotuta arreta ematen dit niri ikusteak zenbat haur dauden oso itzalita bizi direnak. Hau antidepresibo bat da zentzu horretan. Mugimenduan

sartzeko bide ematen du, bazterrak nahastu behar dituzte haurrek, mugitu egin behar dira. Gutxiago kezkatzen gaituzte gerrarik ematen ez duten ikasleak, baina arazo gehiago izaten dira horiekin asko mugitzen direnekin baino. Lehen mugimendu gehiago zegoela iruditzen zait, eta agian, mugimendu hartara bueltatu beharko ginatke.


**Terapiaz gain bada beste ezer zuentzat ilustratzea eta idaztea?**

A.A.: Ilustratzea behar bat da niretzat. Behar hori terapiarekin dago lotua, eta asko sakontzen dut alde horretatik. Nire burua ezagutzeko eta mundua ulertzeko marraztea beharrezkoa da niretzat.

Baina terapia eta beharra bi gauza ezberdin dira niretzat. Terapiaren aldetik, sakontze bat ematen da, non marrazkiak

## "500 ALE ARGITARATU DITUGU ETA HORIETATIK 300 SALDU DITUGU DAGOENEKO"

## "ASKO IKASTEKO BALIO IZAN DIGUN BIDEA IZAN DA HOR DOA PILOTA!-REN ARGITALPENA"



Ainara Altuna ilustratzailea, sormen lan bat egiten. TXINTXARRI

# HOR DOA PILOTA!

Bitartean, egongelan zabal-zabalik geratu diren  
aitonaren margo poteei begira geratu naiz.  
Saski zoragarriak dirudite! Ezin diot tentazioari eutsi...  
**HOR DOA! JAURTIKETA BIKAINA!**







libreagoak diren, eta beste alde batetik dago marrazki horiek erakusteko horiek nola landu.

**Noiztik zabilzate ilustrazio eta idazte lanetan?**

**A.A.:** Bai, betidanik. Zazpi urterekin Miren eta biok marrazketa ikastaro batean hasi ginen, eta orduaz geroztik beti jarraitu izan dut marrazten. Nik Arte Ederrak ikasi nituen. Hori amaituta arte terapiaren munduan murgilduta nabil, baita Psikologiako ikasketak egiten eta ilustrazio lantxoak ere egin izan ditut (Emakumeen Zentro Zibikorako, besteak beste). Baina ezin naiz ilustraziotik bizi, bigarren lan baten antzekoa da.

**M.C.:** Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, eta hasiera batean idaztearekin ez daukat hainbesteko lotura, baina aukera dudana bakoitzean beti egiten dut lantxoren bat. Lan txikiak egin ditut, baina argitaratzera gutxi batzuk iritsi dira. Publikoan hitz egitea ez zait gustatzen, behin testua idatzita noizbait iritsiko denaren esperantzaz uzten dut argitaratu gabe.

**Transmititu nahi duen helburu zehatzik badu ipuinak?**

**A.A.:** Oso irekia da, eta nik uste hobe dela horrela. Gaur egun liburu ugari daude gai zehatz bati lotuak, eta badirudi, etxekolanen antzera, gai zehatzak landu behar direla. Baina liburu bat hartu eta istorioan sartzean lortzen den plazera ere garrantzitsua da. Liburu berak, gainera, esanahi ezberdinak izan ditzake momentu ezberdinetan. Gai zehatzak lantzen dituzten liburuak desegokiak direnik ez dut esan nahi, baina zabalak ere behar direla uste dut.

**M.C.:** Gauza asko ditu ipuinak. Gaur egun liburu asko egiten dira helburu zehatz bat lortzeko. Gu lanean hasi ginean ikuspegi hori zabaldu egin nahi genuen, bakoitzak irakurtzen duenaren arabera gauza ezberdin bat aterako du. Hasieratik zertarako balioko duen esango bagenu, horren bila joango dira irakurleak. Hari asko dituen ipuin bat da, adar asko ditu. Testua irakurtzen genuenean, gure artean ere gauza ezberdinak jasotzen genituen. Niretzako pilota saltokariak eragiten duen mugimendua da gehien azaleratzen duen ideia. Gorputz hezkuntzako irakaslea izanik mugitzea oso garrantzitsua da.

**Ilustrazioaren aldetik, zein material erabili dituzu ipuin honetako marrazkiak egiteko?**

Zehazki ipuin honetarako akuarelak, arkatza eta koloretako arkatzak erabili ditut. Gustuko dut testura sartzea ilustrazioetan.

Papera aukeratzen ere denbora dezente pasa nuen. Akuarela erabiltzen nuenez ur askokin irteten dira margoak, eta segun eta zein paper erabiltzen nuen, orbanak ateratzen zitzaizkidan. Azkenean, paper mota ezberdin ugari probatu eta gero, lortu nuen gustukoa: akuarelaren testurak niri gustatzen zitzaizkidan bezala mantentzen zizkidan.

**Autoekoizpena izan da ipuina? Jaso duzue laguntzarik?**

**M.C.:** Autoekoizpena izan da, bai. Argitaletxe askotan ateak jo ditugu, baina zenbait ate itxiak izan ditugu.

**A.A.:** Gainera, aurkeztera joan ginen uenean, hasierako proiektua



Miren Casado, ipuina idazten. TXINTXARRI

zen. Erdi bidean zegoenean aurkeztu genuen. Horren ostean bueltak eman genizkion proiektuari, eta behin egituratuta zegoela, zenbakiak egin eta posible zela ikusi genuenean, guk argitaratzea erabaki genuen. Ausartu ginen, arriskatu genuen eta aurrera.

Asko ikasteko bidea izan da. **Zenbat ale argitaratu zenituzten?** **A.A.:** 500 ale argitaratu genituen, eta 300 saldu ditugu dagoeneko. Ipuina erosi duten bezeroengandik oso iritzi onak entzun ditugu.

**Eta non eros daiteke?**

Lasarte-Oriako Kattagorri jolas dendan erosi ahal izango da ipuina, eta horretaz gain,

[hordoapilota@gmail.com](mailto:hordoapilota@gmail.com) helbide elektronikoa ere bezeroen eskura jarri dugu. Inork bertatik eskaera egin nahi badu egin dezake.

**Eroso aritu al zarete hiruak, lanean?**

**M.C.:** Itziar eta hiruon arteko lana izan da. Elkartu garen bakoitzean hiruok elkartu gara, eta azken finean, erabaki guztiak hiruon artean hartu ditugu. Lan honetan ikusi dugu nahiz eta hiruon artean oso harreman ona dugun egon direla tirabira txikiak, baina oso gustura aritu gara.

Lan handia izan da, baina oso gustura gaude lortutako azken emaitzarekin.



## Ttakuneko bazkideen artean "Hor doa pilota!" ipuina zozkatuko dugu!

Zozketan sartzeko, eman zure izena Ttakunen bulegoan, 943 37 14 48 telefonoan edo harpidetza@ttakun.eus helbidean urtarilaren 26a baino lehen.



Bazkideiza



@TtakunKE

# Bizikleta errepidera ateratzeko irrikitan

Buruntzazpi Txirrindulari Eskolako gazteak laster hasiko dute errepideko denboraldia. Carbayeda eskolako arduradunak uste du "emaitza politak" atera ditzaketela. Halere, nabarmendu du taldearen helburua kirolariei prestakuntza eskaintzea dela

## Adrian Garcia

Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako gaztetxoek atsedean gutxi dute. Errepideko denboraldia amaitzen dute udarekin batera, baina ez diote uzten pedalei eragiten. Neguan pistana eta zirkulosean ibiltzen dira txirrindulariak, sasoiak ez galtzeko. Amaitzean dituzte pistako lehiaketak, eta Xabier Carbayeda txirrindularitza elkartearen arduraduna dagoeneko errepideko denboraldia hasi da prestatzen. Gustura dago, gainera, haren txirrindulariak pistana lortu dituzten emaitzekin; Gipuzkoako Klubak lehiaketan bigarren egin dute, eta Asier Pozo kadeteak joan den asteburuan Espainiako Kopako proba batean garaipena eskuratu zuen.

Halere, Buruntzazpiko filosofian emaitzak ez dira garrantzitsuenak. Carbayeda txirrindulari profesionala izandako eta Euskaltel-



Asier Pozo, mailot berdearekin, joan den asteburuko lehiaketan. BURUNTZAZPI

Euskadiren garaian zuzendari lanetan ibilitakoa da. Horregatik, ongi bereizten du txirrindularitza eskola batek behar duena. "Gure garaian guri lagundu ziguten bezala, gaztetxoek lagundu behar diegu

guk. Gazteei formakuntza eman behar diegu, etorkizuna bermatu dezaten. Hori da gure helburua, ekarpen bat egitea. Lasarte-Oriako eta Usurbilgo gazteei bizikletan ibiltzeko aukera ematea da gure lana".

Hamabost bat txirrindularik osatzen dute taldea, alebinetatik hasi eta kadete kategorian arte. Jubenil mailakorik ez dute aurten. Prestatzaile fisikoa dute, eta txikienez astean bitan entrenatzen dute. Kadeteek, berriz, ia egunero, astean atsedean egun bat edo bi hartuta.

Neskarik ez dago taldean, nahiz eta erakartzen saiatu diren. "Momentuz ez dugu lortzen. Dirudienez ez dago hemen inguruan bizikletan ibili nahi duen neskarik. Ez da erraza", azaldu du Carbayedak.

Errepidera lehiatzera atera aurretik aurre-denboraldia gimnasioan egiten dute. "Usurbilen badugu gimnasio bat, eta euria egiten duenean arrabola erabiltzen dugu".

Pistako denboraldia amaitzean dago, baina oraindik urtarilean jokatuko dituzte jardunaldi batzuk. Etzi, igandean, esaterako, Anoetan hitzordua dute Buruntzazpiko txirrindulariek; Bio Racer Txapelketaren zortzigarren jardunaldia jokatuko dute. Pozok, ordea, egun horretan Bordelen lehiatuko du, Gipuzkoako Selekzioarekin.

## Errepideari begira

Pozo bigarren urteko kadetea da. Pistan denboraldi oso ona egin du, emaitza on asko pilatu baititu. Espainiako Kopa bukatzeko proba baten faltan, sailkapen nagusian lehen postua

da, bigarrenarekin berdinduta. Otsailaren 10eko asteburuan jokatuko dute proba erabakigarria, Mallorcan.

Carbayedari gustatzen zaio gaztetxoek aurre-denboraldian pistana lehiatzea, errepiderako prestaketa ona delako. "Teknika ikasten dute, tropelean ibiltzen, erreleboak ematen...".

Neguan zirkulosean aritu direnak ere badira; Unai Altunak Legazpin Espainiako kadete txapelketa jokatua zuen, eta "txukun" amaitu zuen, Carbayedaren arabera.

Buruntzazpiko entrenatzailea dagoeneko errepideari begira dago, 2018an "erronka politak" dituztelako. "Iaz Asier [Pozo] hirugarren geratu zen Gaztetxoak txapelketan. Hiru probintzietan eta Nafarroan jokatzen da". Txapelketa horretan lehiatzeko moduan dago Buruntzazpi, horretarako "talde polita" duelako. "Gipuzkoako lasterketetan ere maila txukuna eman dezakegu". Badute taldekide berri bat, gainera: Dani Fursenko, Andoaindik etorria. "Lehen urtean Gipuzkoako txapelketan bigarren egin zuen, lehen urteko infantila izanda".

## PISTAKO LEHIAKETAN ASIER POZOK ESPAINIAKO KOPA IRABAZTEKO AUKERA HANDIAK DITU

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>LURRALDE MAILA IGOERA FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Bergara KE</b> Igandea. 11:45. Michelinen.
<b>ERREGIONAL PREFERENTEA</b>
<b>Martutene KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:30. Martutenen.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Zumaiaiko</b> Igandea. 10:00. Michelinen.
<b>JUBENILEN LEHENENGO MAILA IGOERA FASEA</b>
<b>Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 15:30. Berion.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Antiguoko KE - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Berion.
<b>KADETEEN IGOERA FASEA</b>
<b>Ostadar SKT A - Idiazabal</b> Larunbata. 17:00. Michelinen.

<b>KADETEEN KOPA LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT B - Aizgorri Goierrri</b> Larunbata. 13:00. Michelinen.
<b>INFANTIL TXIKIA SAILKATZE FASEA</b>
<b>Hondarribia - Ostadar SKT</b> Larunbata. 11:45. Hondarribian.
<b>INFANTILEN LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT B - Astigarrako Mundarrio</b> Igandea. 15:00. Michelinen.
<b>Tolosa - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 09:00. Tolosan.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>ESTATUKO HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Eguzki Areto Futbola - Lagun Onak CDA</b> Larunbata. 17:30. Kiroldegian.
<b>GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA</b>
<b>Iso Leihoak Eguzki - SD Euskalduna</b> Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

<b>SENIOR GIPUZKOAKO LIGA</b>
<b>Anoeta FT - Trumoi Taberna Eguzki</b> Larunbata. 16:30. Anoetan.
<b>KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA</b>
<b>Zarauz KE - Balerdi Harategia Eguzki</b> Igandea. 12:30. Zarautzen.
<b>SASKIBALOAIA</b>
<b>PARTIZIPAZIO KADETEAK</b>
<b>Cafes Aitona Askatuak - Ostadar SKT</b> Igandea. 12:00. Donostian.
<b>INFANTIL HANDIAK PARTIZIPAZIOA</b>
<b>Lezo Institutua - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:15. Lezon.
<b>INFANTIL TXIKI PARTIZIPAZIOA</b>
<b>Bergara Soraluze Txiki - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:00. Bergaran.
<b>PILOTA</b>
<b>ESKUZ BINAKA UDABERRIKO TXAPELKETA</b>
<b>Gazteleku - Intza 1</b> Ostirala. 18:30. Arrate pilotalekuan.

<b>Tartaloetxe - Intza 2</b>
Larunbata. 17:30. Zegamako pilotalekuan.
<b>INFANTILAK BIGARREN MAILA</b>
<b>Intxurre 2 - Intza 1</b>
Ostirala. 18:30. Ikaztegiatiko udal pilotalekuan.
<b>Hernani 1 - Intza 2</b>
Larunbata. 15:30. Hernaniko udal pilotalekuan.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO MAILA</b>
<b>CR La Vila - Hernani CRE</b> Igandea. 12:00. Villajoyosan.
<b>18 URTE AZPIKOA</b>
<b>Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Getxo RT</b> Larunbata. 11:15. Michelinen.
<b>14 URTE AZPIKOA</b>
<b>Babyauto Zarautz KE/ Getxo RT</b> Larunbata. 10:15. Michelinen.

<b>TXIRRINDULARITZA</b>
<b>BIO RACER TXAPELKETA</b>
<b>Zortzigarren jardunaldia jokatuko du Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak.</b> Igandea. 10:00. Donostiako Belodromoan.
<b>IGERIKETA</b>
<b>ESPAINIAKO TXAPELKETA</b>
<b>Nahia Zudairek Gazteen Espainiako Txapelketa Egokitua jokatuko du Valentzian. Euskadiko Selekzioa ordezkatzeko du Nahia.</b> Larunbata eta igandea. Valentzian.
<b>ALEBIN LIGA</b>
<b>Alebin ligako laugarren jardunaldia jokatuko dute Tolosan.</b> Larunbata. 17:45. Usabal, Tolosan.
<b>BENJAMIN LIGA</b>
<b>Benjamin ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute Tolosan.</b> Larunbata. 15:30. Usabal, Tolosan.



Unai Iribar baloia kontrolatzen, Egoitz Rodriguez taldekidea alboan duela. Julen Bermejok ere gertutik jarraitzen du jokaldia. TXINTXARRI

# Ostadar mutilak, hiru puntu baino gehiago

Erregional Preferenteak ederki hasi du 2018a: 2-1 irabazi dio Sanpedrotarra arerio zuzenari, eta pasa den astean Trintxerpen zakuratutako puntuari are balio gehiago eman dio. Jaitsiera postuetan jarraitzen du, baina gertuago dauka salbazioa

## Iñigo Gonzalez

Arerio zuzenen aurka jokatzeko diren neurketek balio bikoitza dute: irabazten baduzu, urrezko hiru puntu poltsikoratzen dituzu, eta, gainera, arerio zuzena esku-hutsik utzi eta sailkapenean dagoen aldea estutzen duzu. Hori jakinda atera da zelaia Ostadar, eta gogor lan egin eta gero, 2-1 irabazi dio Sanpedrotarrari. Hiru puntu baino askoz gehiago lortu ditu taldeak asteburu honetan: jaitsiera postuetan jarraitu arren, puntu

bakar batera dauka salbazioa. 2018an galdu gabe segitzen du: hiruna berdindu zuen Trintxerpen joan den astean, urte berriko aurreneko partidari. Zakuratutako puntuari are balio gehiago eman dio: 14 ditu orain zorroan, eta azkeneko postuari agur esan dio, aspaldiko partez.

Aurreneko minutuetan Ostadarrek sortu du arrisku gehiago. Iribarrek gutxiatik ez du sareratu kórner bat; gora joan zaio errematea. Hegaletatik ere min egin dio Sanpedrotarrari, baina

aurrelariak ezin izan dituzte erdiraketak sareratu. Aurreneko zatiko erdialdera iritsi ahala, Ostadarrek lerroak apur bat atzera eraman ditu, eta Trintxerpeko taldea hasi da zelai erdiaz nagusitzen. Ez du aparteko abagunerik sortu, baina gusturago egon da zelaian minutu horietan. Bi taldeek asko

zuten jokoan, Ostadarrek batez ere, eta nabaritu da berdegunean: inork ez du gehiegi arriskatu nahi izan. Denboraldi honetan opari dezente egiten ditu Erregional Preferente kategorian ari den taldeak, eta ez du hori errepikatu nahi izan.

## Urrezko hiru puntu

Jokoa tratatua egon ohi denean, estrategiako jokaldiak izan daitezke markagailuan aurrea hartzeko baliabide egokiak. Hala sartu du 0-1ekoa Sanpedrotarrak: falta jaurtiketa bat erdiratu, eta zenbait aldaratze eta gero, Iker Hermandoren ateko sareetan bukatu du baloia. Gehiegi egin gabe aurkitu du saria talde moreak. Berriro ere markagailuari buelta ematea tokatu zaio Ostadarri. Askotan irakurri dute gidoi hori lehen ere Asier Aizpurua eta Ander Rekondok zuzendutako jokalariek, eta behin baino gehiagotan egin dute balentria. Gaur ere bai: lehenengo gola oraindik ospatzen ari zirela ia, banakoa sartu dute lasarteoriatarrek, kórner batean, hainbat aldaratze eta gero, baita ere. Taldeko golegile nagusi Ivan Ruizek sartu du banakoa. Markagailua ez da gehiago mugitu aurreneko zatian.

Futbola kuriozoso da askotan. Logika askorik gabea ere bai, zenbait aspektutan. Ostadarren jokoa aztertuta, gutxitan jokatu du partida honetan baino okerrago. Hainbatetan merezi izan ditu puntuak, baina esku-hutsik geratu da azkenean. Ez da izan Sanpedrotarra baino gehiago, ez ditu egin beste zenbait jardunalditan bezainbeste meritu irabazteko,

baina neurketaren hondarrea 2-1ekoa sartu eta hiru puntuak zakuratu ditu. Egoitzek sekulako jokaldia egin du ezker hegalean: atzean utzi ditu lau arerio, area barrura sartu da, Unai Iribar errematatze posizio onean zegoela ikusi, eta baloia pasa dio. Erdilari gazteak ez du barkatu, eta 2-1ekoa sareratu du. Gogotik ospatu dute jokalariek zelai barruan, eta baita ordezkoe eta entrenatzaileek ere, aulki ondoan. Garaipen honek hiru puntu baino askoz gehiago balio ditu.

89. minutuan sartu du 2-1ekoa Ostadarrek. Hori baino lehen, nabarmentzeko moduko jokaldi gutxi, baina garrantzitsuak. Horietako bietan Sanpedrotarrak jokalaria izan dira protagonista: langara jaurti dute falta bat, eta Ostadarreko Asier Hazasek gol-marran aldendu du ate barrura zihuan baloi bat. Beste batzuetan bizkar eman die zorreak urdinbeltzei, baina gaurkoan alde eduki dute. Hori ere behar da batzuetan irabazteko, arerioak baino meritu gehiago egiten ez dituzunean, batez ere.

Garaipen honekin sailkapeneko azken postuari agur esan diote herritarrek. Jaitsiera postuetan segitzen dute, baina goiko taldeak gertuago ditu orain; salbazioa, puntu bakarrera. 2018an bi neurketa jokatu ditu Ostadarrek, eta sei puntutik lau atera ditu. Pixka bat atzeragotik eginda kontuak, azken hamabietatik, zazpi. Dinamika horretan jarraituz gero, helburua lortu ahal izango dute. Lan asko egin beharko dute, baina gogoia, lan-tresnak eta ilusioa badauzkate, behintzat. Ez da gutxi.



Ostadar eta Sanpedrotarra taldeen arteko partida borrokatua izan da. TXINTXARRI

## Igotzeko lehian, azken arte

Ostadar SKTko Lurralde Mailako seniorrak igoera fasea hasi berri dute. Lehen partida galdu zuten aurreko asteburuan Lesakan, baina oraindik egutegi luzea dute aurretik. "Zelai zaila da Beti Gazterena, igotzeko lehian daude haiek", esan dio TXINTXARRI-ri Asier Pavon entrenatzaileak. Halere, taldeak eginiko lehenengo zati "ikaragarriarekin" pozik da.

Zaila ikusten du Pavonek taldea igotzea, aukera asko uzten ez dituelako igoera faseko sistemak. Hamar taldeko ligaxka bat da, eta joan eta etorriko partidak jokatuko dituzte. Talde bakarra igotzen da, ordea. "Eibar, Beti Gazte, Lagun Onak... igo daitezkeen talde asko daude". Halere, neskengan konfiantza du entrenatzaileak, eta ziur da azken unera arte aukerak izango dituztela.

# Larunbat beltza errugbiko taldeentzat

Garaipenik ez zuten erdietsi Beltzak taldeko mutilek. Maila guztietako taldeek porrotak jasan zituzten eta 18 urte azpikoak ezin izan zuten Gernikan jokatu euriagatik. Igandean, eskolen topaketa izan zen Michelinen, eta 130 bat gaztetxo batu ziren

## Txintxarri

Aurreko asteburuan Michelingo zelaian errugbiaz gozatu ahal izan zen beste behin. Larunbatean senior mailako B taldeak Txingudi RCren aurkako norgehiagoka jokatu zuen. Euskal Ligako partidari Oihan Corchero, Gorka Aristondo eta Julen Aristorena herritarrek izan dira zelaian. Ez dute zorte handirik izan, eta 12-43 galdu dute. Partidan, gainera, Ander Lasa aiarrak min hartu du, eta lesio larria du: lotailu-haustura du. Horrez gain, gipuzkoarren arteko derbian ere galtzaile atera dira. Eibarren aurka 24-32 galdu dute.

Aurreko asteko porrotaren ostean, arerioa garaitu eta ikusleei garaipena eskaintzeko gogoekin atera da taldea Babyauto Zarautz. Baina planteamendua ez da ongi atera, eta Eibar nagusitu da hasieratik. Erraz alde egin du markagailuan, eta 61 minutuan 20 tantoko tartea zegoen, 5-25.

Zarauzko taldearen aurrelarien jarrera oso ona izan da. Nahiz eta baja garrantzitsuak izan, joko estatikoan ederki moldatu dira. Mele eta aldeko sakeez ongi baliatu dira, eta honela etorri da lasarteoriatarren partidako lehen entsegua. Touch sake baten ostean, Xabier Prietok zelaira bota du pilota. Jarraian Babyautok beste bi entsegu egin eta markagailuko tartea murriztu du. Jokoa zuzendu du Zarauzko taldeak bigarren



Babyauto Zarautzek Eibarren aurkako derbia galdu zuen. TXINTXARRI

zation, baina Eibarrek entsegua eginez, garaipena bere egin du. Babyauto partida berdintzen ahalegindu da; azken entsegua berea izan da 24-32, baina ez du denbora gehiagorik izan.

Xabi Prietok, Unai Urruzolak, Adrian Apaolazak, Ritxard Yurramendik, eta Ander eta Xabier Rekondok jokatu dute partida.

## Lagunartekoa

16 urte azpiko taldeak, berriz, Hernani RT izan du aurrez aurre L a n d a r e n j o k a t u t a k o lagunartekoan. Ez du aukerarik izan, eta Hernanik lortu du garaipena. Bestalde, 18 urte azpiko taldeak, ezin izan du jokatu. Gernikaren aurkako

partida bertan behera geratu da zelaian ur gehiegi zegoen eta.

Igandean ere izan da izerdia botatzeko aukera errugbi eskoletako gaztetxoak izan dira Michelinen. Gaztedi, Eibar, Mutriku eta Zarautz Beltzak taldeko 130 bat jokalarik bildu dira. 10 eta 12 urte azpiko mailako gaztetxoek haien trebezia erakutsi dute baloia jaurti eta plakaketak egiten. Ostean, Beltzak taldekoek beteranoek prestatutako *hirugarren zatiaz* gozatu dute.

Bestalde, larunbata honetan 18 eta 16 urte azpiko taldeak izango dira Lasarte-Orian. Euskal Ligako bigarren faseko partida hauetan Getxo izango dute aurkari.

Michelingo zaletuei partida ederra zapuztu zaie azkeneko zatian; Haritz Urkiak ezin izan du partida amaitu, eskubiko eskuan min hartu baitu.

Partida berdindua izan da hasieratik. Bi bikoteak ongi ibili dira aurrean. Ezbeharrak gertatu aurretik tanto bateko errenta zuen etxeko bikoteak.

Hemezortzigarren tantoa jokatzen ari zirela, pilotari gaizkijo eta eskubiko eskuko hatz bat txikitu du Urkiak.

## Zudaire, Gazteen mailako Espainiako txapelketan lehiatuko da

Asteburu honetan, urtarrilaren 20 eta 21ean, Buruntzaldea IKTko Nahia Zudaire Euskadiko Selektzioarekin Gazteen Igeriketa Egokituko Espainiako Txapelketan lehiatuko da, Valentzian.

Zudairek lau probatan hartuko du parte: 50 eta 100 metro tximeletan, eta 50 eta 100 metro librean.

"Aurreko urtean egin bezela, aurtengoan ere, ahalik eta postu onenetan egoten saiatuko da gure gaztea", esan du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

## Txikiak ere lehiatuko dira

Bestetik, alebin eta benjaminen lehiaketa izango dute Tolosako Usabal kiroldegian.

Alebinek Ligako laugarren jardunaldia jokatuko dute. Benjaminen, aldiz, Kirol Zehaztasun Ligako bigarren proba izango dute.

## Fernandez, hirugarren Portugaleteko traineru jaitsieran

Lasarteoriatarrek Donostiarra utzi eta Hondarribia arraun elkartean hasi du denboraldi berria

## Txintxarri

Intza Fernandez herritarra Hondarribia arraun elkartean ari da arraunean. Azken denboraldia Donostiarra elkartean egin ondoren, Hondarribia elkarteko proiektu berriarekin bat egin du, eta Iker Cortes Hibaikako entrenatzaile ohiaren esanetara lanean ari da irailetik.

Lau hilabetez lehorrean entrenatu ostean, uretara ateratzeko ordua iritsi zaio. Larunbatean egin du debuta Fernandezek Hondarribiako traineruan, Portugaleteko San Nikolas jaitsieran, hain zuzen. Urteko lehen proba izan da. Hondarribiak hirugarren postua eskuratu du.

Bost traineru izan dira buruz buru, erlojupeko proban: Hondarribia, Deustu, Lea-Artibai, Orio eta Arraun Lagunak.

Hondarribia bere mailako lehena izan da itsasoratzen, eta



Hondarribian dago Fernandez. I. FERNANDEZ

14 minutu eta 55 segundotan egin du ibilbidea.

Halere, Donostiako Arraun Lagunak traineruak eraman du garaikurra, 14 minutu eta 36 segundoko jaitsiera eginez. Eta podiumeko bigarren maila Oriorentzat izan da, 14:49 denborarekin.

## Udaberriko Txapelketan, estreinaldi aldapatsua

Intza 2-ko bikoteak ezin izan du partida amaitu, Haritz Urkiak eskuineko eskuko hatz batean min hartu du eta

## Txintxarri

Udaberri Txapelketako lehen partidak jokatu dituzte asteburuan, Michelinoko pilotalekuan. Intza elkarteko senior bikoteek Azkoitia eta Intxurre izan dituzte aurrez

aurre. Arratsaldeko bigarren partidari, infantilenaren ondoren, Intza 2 osatzen duten Haritz Urkiak eta Gaizka Iruretagoyenak Intxurreko Artola-Jauregui bikotea izan dute buruz buru.

Michelingo zaletuei partida ederra zapuztu zaie azkeneko zatian; Haritz Urkiak ezin izan du partida amaitu, eskubiko eskuan min hartu baitu.

Partida berdindua izan da hasieratik. Bi bikoteak ongi ibili dira aurrean. Ezbeharrak gertatu aurretik tanto bateko errenta zuen etxeko bikoteak.

Hemezortzigarren tantoa jokatzen ari zirela, pilotari gaizkijo eta eskubiko eskuko hatz bat txikitu du Urkiak.

Bederatzina berdindu dute partida, baina Urkiak ezin izan du jarraitu. Norghegiagoka bertan behera geratu da, eta partida galdutzat eman diote Intzako bikoteari (9-22).

## Nagusi


Intza 1 bikoteak, berriz, erraz irabazi dio Azkoitiari, 22-4, hirugarren partidari.

Partidak lehen minutuetan berdindua zirudien arren, hiruak berdinketa egon da,


Jon Peio Artetxek eta Mikel Elolak ez diete arerioi aukerarik eman. Atzelariak, esaterako, ez du lan erraza izan. Lasarteoriatarrek erasoak behin eta berriro zuzendu dizkiote, eta akats ugari egin ditu. Ondorioz, hamalau tanto jarraian egin dituzte, eta tartea ireki dute. Azkoitiak ezin izan dio partidari buelta eman.

Era honetara, txapelketako lehen puntuak lortu ditu Intza 1 bikoteak.


ZORION AGURRAK




**Maider**  
Zorionak maitia. Hamar muxu pottolo gurasoen partetik. Asko maite zaitugu.



**Beñat**  
Zorionak polita zure lehen urteboagatik. Amona, aitona eta osabaren partetik. Muxu haundi bat!




**Aratz**  
Zorionak Aratz!! Disfrutatu zure egunaz eta 8 muxu potolo, etxeko guztion partez.



**Enaitz**  
11 muxu erraldoi. Oso ondo pasa zure egunean. Muxuak aita ta Elaiaren partetik!!



**Puri eta Julian**  
Aupa bikote!  
Aupa 50ak!  
Zorionak!



**Irati**  
Zorionak maitia zure urtebetetzean!! Ondo pasa eta 9 muxu goxo!!

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 19 GIL  
Larunbata, 20 GANDARIAS-URIBE  
Igandea, 21 GANDARIAS-URIBE  
Astelehena, 22 ACHA-ORBEA  
Asteartea, 23 URBISTONDO  
Asteazkena, 24 GANDARIAS-URIBE  
Osteguna, 25 ORUE

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Castilla-Larburu: Urbietta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

OHARRAK

**Biyak Bat elkartearen batzar orokorra**

Biyak Bat elkarteak jakinarazten du, urtarrilaren 27an, larunbata 2017 urteari dagokion batzar orokorra egingo duela. Lehen deialdia 17:30ean da eta bigarrena berriz, 18:00etan.

Elkarteak bazkide guztiei deia egiten die batzarrerara hurbiltzeko elkartearen egoeren berri izan dezaten.

**Odol-ateratzea**

Hilabeteko azken astelehenean, urtarrilaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetzte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

**Mus txapelketa**

Euskal Herriko X. Mus Txapelketako Lasarte-Oriako fasea jokatu da urtarrilaren 26an, Xirimiri elkartean. Egun horretan bertan, elkartera izen ematera gerturatzen direnek momentuan jokatu dute kanporaketa, eta bertan irabazle suertatzen direnek Gipuzkoako txapelketarako pasea lortuko dute. 20 euroko kostua (bikoteko) izango du izen emateak.

**Eskalada doan, Pio Barojan**

Lasarte-Oriako Udal Kirol Zerbitzuak eskaladan hasteko saio berezia antolatu du 2006, 2007, 2008 eta 2009an jaiotako neska-mutilentzat. Jardunaldia urtarrilaren 27an egingo da, arratsaldeko 16:00etan, Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Interesa duten pertsonak Maialen Chourraut kiroldegian eman beharko dute beraien izena. Plaza kopurua mugatua denez, izen-emate zerrenda errespetatu da. Jarduera doan izango da udal kirol instalazioen bazkideentzat.

TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUNA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

8		5	7		6		1	2
1				9	8			
	6		2		1		3	
2		7			4	3		
		8				1		
	1		8				7	9
9		1	5	8	3	6		
	8		6			5		
		6		1	2			3

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

**Internet**  
Txintxarri.eus-en  
[txintxarri.eus/zorionagurra](http://txintxarri.eus/zorionagurra) eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AZOKA TXIKIA

### ETXEBIZITZA

**SALMENTA**  
Garajea salgai Andatza plazan. 23,18 m<sup>2</sup>. 635 702 404.

### ERRENTAN EMAN

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659 021 945

### LANA

#### ESKAINZA

Barazar tabernak zerbitzaria behar du asteburuetarako. Euskalduna bada, hobeto. Telefonoa: 678 188 818.

#### ESKAERA

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia

duen emakumea interna gisa lana egiteko prest. 642 595 146.

Garbiketa lanak edota adineko pertsonen zainduko nituzke. Asteleheneretik ostiralera eta asteburuetan lan egiteko prest. 690 146 067.

Lan bila nabil (arratsaldetan). Jostuna naiz, baina etkez-etxekeko zerbitzuan ere esperientzia badut. 689 103 340.

Emakumea eskaintzen da etxeke lanak egin edo pertsona edadetuak zaintzeko. Egun osoz edo

orduka. Telefonoa: 695 652 161.

## ESKELAK

**ESKELAK JARTZEKO:**  
Txintxarri erredakzioan  
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

**Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan**

## JAIOTAKOAK

**Pol Nogales Pablo.** Urtarrilaren 10an.

## HILDAKOAK


**José Candela Romo.** Urtarrilaren 15an.

**Simón Vitores Curiel.** Urtarrilaren 11an.

**Francisco Ibarburu Sarriegi.** Urtarrilaren 10an.

**Gonzalo Redruello.** Abenduaren 20an.

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

### PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 19

**LASARTE-ORIA Danborradak**  
San Sebastian bezpera dela eta, Lasarte-Oriako ikastetxeetan danbor hotsak izango dira nagusi: **15:00etan**, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko HHko ikasleen saioa, Zumaburu plazan. **15:40ean**, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LHko ikasleen saioa, Sasoeta eraikinean. **16:00etan**, Landaberri ikastolako HHko ikasleen saioa, Landaberri-Garaiakoetxea eraikinean. **16:00etan**, Landaberri ikastolako LHko ikasleen saioa, Zubietako eraikinean. Eguraldi txarra eginez gero, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko saioetara ezingo dira gurasoak sartu. **Ikastetxeak, 15:00etatik aurrera**

**USURBIL Danborradak**  
San Sebastian bezpera dela eta, danborrada egingo dute Udarregi ikastolako haurrek: **15:45ean**, HH-koen danborrada saioa. Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko patioko aterpean. **16:10ean**, LH-koen danborrada saioa. Eguraldi txarra egingo balu, Agerialdeko sarrerako frontoi txikietan. **Agerialde, 15:45etik aurrera**

**HERNANI Erakusketa**  
*Urumea bizi* argazki erakusketa ikusgai dago, Haritzalde naturzaleen elkarteak antolatua. Ostirala 26ra arte irekia, astean zehar. **Biteri kultur etxea, 18:00etatik 20:00etara**

## LARUNBATA 20

**DONOSTIA San Sebastian eguna**  
San Sebastian egunean Donostiako txoko guztietan danbor eta kupelen barrunbak entzungo dira. Egurdian haurren danborrada izango da. **Donostia, egun osoan zehar**

## IGANDEA 21

**DONOSTIA Ikuskizuna**  
*Ene kantak: Astonauta* ikuskizuna eskainiko dute. Sarrera, 12 euro. **Victoria Eugenia antzokia, 17:00etan eta 19:30etan**



**LASARTE-ORIA Danborradak.** Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gazteok aste hauetan egindako entseguen emaitza erakutsiko dute. Sarrigiren doinuena eta beste abestien erritmora, etxeko txikiak danborra jotzen duten trebezia ikusi ahalgo dute gurasoek, senideek eta laguntxoek. **Beti ere, noski, eguraldiak laguntzen badu. Ikastetxeak, 15:00etatik aurrera**

## ASTEARTEA 23

**HERNANI Zilegi eskola**  
Apiterapia ikastaroa, Pello Zubiria gai-emailearen eskutik. Doan. **AEKren lokala, 09:30ean**

**ASTIGARRAGA Irakurketa kluba**  
Harkaitz Canoren *Beti oporretan* liburua aztertuko dute. Saioa lxabel Etxeberriak gidatuko du. Doakoa. **Liburutegia, 19:30ean**

## ASTEAZKENA 24

**HERNANI Zilegi eskola**  
Apiterapia ikastaroa Pello Zubiria gai-emailearen eskutik. Doan. **AEKren lokala, 18:30ean**

## OSTEGUNA 25

**LASARTE-ORIA Hitzaldia**  
Xabier Barandiaran soziologoak *XXI mendean egin behar dugun herrigintza* hitzaldia eskainiko du. BAI plataformak antolatutako ekitaldia. **Villa Mirentxu, 18:30ean**

## OSTIRALA 26

**ANDOAIN Kontzertua**  
Elliot Murphik *Prodigal son* azken diskako abestiak aurkeztuko ditu, Olivier Duranekin batara. Doinu rockeroak entzuteko aukera

aproposa. Sarrera, 15 euro. **Bastero kulturgunea, 21:30ean**

## LARUNBATA 27

**LASARTE-ORIA Antzerkia**  
Marie de Jongh antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du, *Izar* antzezlan. Maskarak eta keinuak nahasten ditu lanak. Familia ikusteko aproposa. Sarrera, 3,80 euro. **Manuel Lekuona, 17:00etan**

**ANDOAIN Pailazoak**  
Pirribx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Borobilean* haur-ikusizuna. Sarrera, 6 euro. **Bastero kulturgunea, 16:30ean eta 18:30ean**

**ASTIGARRAGA Kontzertu didaktikoa**  
Sugar boskoteak Esther Iñiguezekin batera, Intxaur hauskailearen ipuina eskainiko dute. Haurrei zuzendua dago, eta zurezko haize instrumentuak ezagutzera emango dituzte. Doakoa. **Norberto Amadoz musika eskola, 17:00etan**

**ASTIGARRAGA Antzerkia**  
ArteDramak *Hozkailua* lana eskainiko du. Ander Lipus eta Patricia Urrutia dira antzezleak, eta Unai Iturriagak idatzi du testua. Umore beltza da nagusi, baina sakontasunarekin. Sarrera helduek, 6 euro; adin txikiok, 3 euro. **Kultur etxea, 20:00etan**

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Star Wars: Los últimos Jedi**  
Igandea: 17:00, 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

**Star Wars: Los últimos Jedi**  
Ostirala: 16:00, 19:00, 23:50. Larunbata: 16:00, 19:00, 23:50. Igandea: 16:00, 19:00.

#### COCO

Ostirala: 18:00. Larunbata: 15:45, 18:00. Igandea: 15:45, 18:00.

#### El Gran Showman

Ostirala: 15:55, 20:30, 22:45, 00:55. Larunbata: 20:30, 22:45, 00:55. Igandea: 20:30, 22:45.

#### El instante más oscuro

Ostirala: 16:30. Larunbata: 16:30. Igandea: 16:30.

#### Ferdinand

Ostirala: 18:15. Larunbata: 15:50, 18:15. Igandea: 15:50, 18:15.

#### Insidious: La última llave

Ostirala: 19:00, 22:45, 01:00. Larunbata: 19:00, 22:45, 01:00. Igandea: 19:00, 22:45.

#### Jumanji: Bienvenidos a la jungla

Ostirala: 15:50, 17:50, 20:20, 22:45. Larunbata: 17:50, 20:20, 22:45. Igandea: 17:50, 20:20, 22:45.

#### Los archivos del pentágono

Ostirala: 15:55, 18:20, 20:15, 22:40, 01:00. Larunbata: 15:55, 18:20, 20:15, 22:40, 01:00. Igandea: 15:55, 18:20, 20:15, 22:40.

#### Tres anuncios en las afueras

Ostirala: 16:15, 18:40, 20:20, 21:15, 22:00, 00:20.

Larunbata: 16:15, 18:40, 20:20, 21:15, 22:00, 00:20. Igandea: 16:15, 18:40, 20:20, 21:15, 22:00.

#### Molly's Game

Ostirala: 22:00. Larunbata: 22:00. Igandea: 22:00.

#### Perfectos desconocidos

Ostirala: 15:45, 18:00, 20:45, 22:55, 01:00. Larunbata: 15:45, 18:00, 20:45, 22:55, 01:00. Igandea: 15:45, 18:00, 20:45, 22:55.

#### Que baje Dios y lo vea

Ostirala: 15:50. Larunbata: 15:50. Igandea: 15:50.



LABURPENA

**Star Wars: Los últimos jedi**  
**Zuzendaria eta gidoilaria:** Rian Johnson. **Herr.:** AEB (2017). **Argazkia:** Steve Yedlin. **Aktoreak:** Mark Hamill, Carrie Fisher, Adam Driver, Daisy Ridley, John Boyega, Oscar Isaac, Lupita Nyong'o. **Iraupena:** 152 minutu.

## Sekretuak eta iragana argitara

Star Wars film famatuena azken atala, *Star Wars VIII: Azken Jediak*, ikusi ahalgo da Manuel Lekuona kultur etxean.

*Indarraren Iratzartzea* filmaren jarraipena dugu VIII. kapitulu hau. Aurreko ataleko gertaerak kontuan izanik, jedi bihurtzeko pausoak emango ditu Rey txatar-biltzaile gazteak.

Galaxiako puntu ezezagun batean erretiroa hartuta dagoen Jedi Maisu bat izango da bere irakaslea: Luke Skywalker.

Lanean hasi ostean, Skywalker kezkatuta dago gazteak indarrarekin duen lotura ikaragarriarekin.

Erresistentzia, bitartean, lanean ari da Lehen Ordenaren eta Kylo Renen aurkako borrokari ekiteko, Poe eta Fynn barne.

Aurreko filmaren antzera, saga honetako pertsonaia ezagunak eta berriak bat egiten dute. Abentura honetan, gainera, Indarraren sekretu arkaikoak eta iraganeko gertaerak ezagutzera emango dira.

Lasarte-Oriako herritarrek bi saio izango dituzte filma ikusteko. Bata 17:00etan, haurrei zuzendua. Bestea 19:30ean, helduentzat. Haurren saioa sarrerak 3,80 euro balio ditu; helduen saioak, berriz, 5,50 euro.



Zure herrian bertan, euskaraz

**Landaberri**  
IKASTOLA  
LASARTE-ORIA

# MATRIKULAZIOA:

urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra



## ESKOLA KOMUNITATEAK ADOSTUTAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA

- 2 urtetik aurrera
- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Herrian integratutako plangintza
- Atzerriko hizkuntza: Ingelesa 4 urtetik aurrera
- Teknologia berrien erabilera. Baliagide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa
- Behar berezia duten ikasleentzat:
  - Gela egokituak
  - Laguntzako irakasleak
  - Aholkulariak
- Bestelako eskolaz kanpoko jarduerak
- Garraio-zerbitzua
- Goizeko 08.00etatik 09.00etara harrera zerbitzua
- Jangela zerbitzua

## BILERA

HH eta LH:

**urtarrilaren 25an 15.30ean**

Garaikoetxea eraikineko soinketa gelan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO matrikula

Garaikoetxea eraikinean (Atsobakar 3)

Tel: 943 37 06 62 landabulego@gmail.com

Ordutegia: 09.00etatik 13.00etara